

**Goibekokate**

1996ko urtaila. 15zk

ELGETAKO ALDIZKARIA

# ELKORO BINAKAKO EUSKADIKO TXAPELDUN

*Maderas Gallastegi, s.a.*

**MENDI UZTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA**

Azkarreta cruzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA) Tel. eta Faxa: 6583061.

## Ez dute lotsarik

Banengoen ba aurten goa izango zelakoan, baina ez, aurten ere ez. Honela daramatzat hiru urte itxoiten. Hiru urte elgetar txirrindulari batek Elgetako afizionatu lasterketan partehartzen duela. Badirudi txirrindulari honen partehartzeak lasterketa honen antolatzailleengan ez duela inongo interesik pizten. Haultzako elgetar hau txirrindulari bat gehiago da eta honela pentsarazten didate beraien jarrera axolagabearekin.

Edozein herritan ikusi dezakegu nola herriko lehenengo sailkatuari saria ematen dioten trofeo, dirusari nahiz opari moduan. Gure herrian ez dugu honelakorik ikusten. Ez dute lotsarik, ez dakite txirrindularitza zein gogorra den, ez dut uste etapa amaieran berarekin egon zirenik eta ziur nago edozein arrazoidun pertsonak ez lukeela honelako akatsik izango. Baina gauza ez da herriko lehenengoa izatea (bera bakarra baita), gauza detailea da. Aurreko larunbatean inondik ikusi ez nuen detailea (aurreko bi urteetan ere ez noski). Ahalegin handia al da beraien aurrekontutik zati txiki bat egin behar honetara bideratzea? Zer gertatuko zen garaipen handi bat lortuz gero? Orduan denok muturka argazkian sartzeko irrikaz. Etorriko ziren omenaldi, plaka "oroigarri", etab., baita joan ere ni bere lekuan egongo banintz.

Ea ez den gertatzen horrelakorik ondorengo laster-

ketetan, ez txirrindulari honekin ez bidean datozen beste elgetar txirrindulariekin.

*Kepa Sakolegi*

## Ekintza hitzaren gainetik

Erantzun txiki bat eman nahi genioke aurreko alean EAJ-PNV taldeko zinegotziek bidalitako eskutitzari. Gazteen arloari dagokionez, esan beharra daukagu bai Gazte Asanbladak eta baita azken honen lantaldea den **Goibekokale** aldizkariak lan handia egin behar izan duela udaletxetik laguntzak jasotzeko.

Denbora luzean zehar lan egin dugu dirulaguntza eta lokalik gabe eta herriaren onarpena jaso ostean etorri dira laguntzak. Gazte Asanbladakook, lokala hartu aurretik, hiru urteetan zehar antolatu ditugu ekintzak. Udaletxeak eman diguna erabiltzen ez ziren lau horma izan dira, mantenimuntuko gastu guztiak guk ordaintzen baititugu.

Gazteok onuraren bat lortu badugu gure lanagatik izan da, ekintzak aurrera eramateko izan dugun gogoarengatik. Hemendik aurrera ere dinamika horrekin jarraituko dugu, herri guztiarentzako ekintzak antolatzen, nahiz eta EAJko zinegotziak "udalaren lan gogorra"z hitz egineta guk egindako lana ez aipatu.

Elgetako Gazte Asanblada

## Abuztuko aleak kale

Oporretara doa **Goibekokaleko** lantalde osoa. Guk ez dugu idatzi behar hilebete honetan baina horrek ez du esan nahi zuek idatzi behar ez duzuenik.

Aldameneko atala zuentzako txokoa duzue. Herritarren nahiak, arazoak, agurrak, kexak, ondo eginak eta hain ondo ez daudenak aipatzeko lekua duzue. Adierazpen askatasuna ziurtatzen duen lekua.

Zergatik egiten dugun aipamen hau? Jendeak zeresan asko duela pentsatzen baitugu.

Gainera, badakizue (orainarteko aleetan batzuk agertu baitira) gaitzinez izenpetutako kartak onartzen ditugula. Dena den, ezinbestekoa da (legearekin arazorik izan ez dezagun) karta horiek bidaltzen dituenaren izen-abizenak eta nortasun agiria zenbakia jakitzea telefonoarekin batera. Izen-abizenak argitaratu edo ez gero pentsatu beharrekoa da. Egileak esango digu bere izenez izenpetzea nahi duen ala ez. Karta hauen egilearen nortasuna erredakzio kontseilukook bakarrik jakingo dugula ziurtatzen dugu.

Azkenengo bi hilabeteetan hiru karta anonimo jaso ditugu eta, gure nahia pertsona guzti horien idatziak herri guztiak irakurtzea den arren eskuak lotuta ditugu. Pena da, hiruren artean karta politikak baitzeuden.

Besterik gabe opor ostera arte agurtzen gara hurrengo hilabeteko alerik izango ez dela gogoratu ostean.

Ondo pasau!

Erredakzio kontseilua



*Estampaciones*

**Elgeta**

Estanpaketa orokorra,  
Prensa automatizatuak 250 tonaraino,  
Serie handietan espezializatua.



## Aurten nora?

**O**porrak gainean ditugu, eta da-  
goeneko gehienok jakingo du-  
zue abuztua non eta nola pasa.

Besteok, berriz, oraindik ez duzue jakingo zer egin edo nora joan. Hala ere, jakin ala ez, seguru ondo pasatuko duzuela oporretan. Galdetu bestela jendeari abuztuaren amaiera aldera zer moduz ibili den, eta denek erantzungo dizuete ondo ibili direla. Izan ere, nola esango dugu ba gaizki ibili garenik kanpora joan eta hainbeste diru gastatu ondoren? Eta, etxe inguruan gelditu bagara ere, nola esango dugu ba gaizki ibili garenik? Norbaiti, zer moduz oporretan? galdetu eta, txarto! erantzunez gero, benetan txarto pasa duela esan nahi du; alegia, gorriak ikusi dituela, eta ez dakit zenbat kalamidade batera gertatu zaizkiola esan nahi du. Asper-asper eginda ibili bada ere, edo aurrez amestutako moduko oporrak izan ez badira ere, erantzuna, gehien jota ere, beno!, tira!, betiko moduan! edo antzerakoren bat izango da.

Merezita edo merezi gabe, gehienok izango ditugu jai egun batzuk, bueltan berriz ere lanari gogoz heltzeko (ja!). Orduan ere, "Kurroan" baino "Kurro"rekin Karibean hobeto egongo ginateke, nahiz eta jende asko "kurroa" izatearekin ere konformatu. Ikasle batzuk ere hor arituko dira abuztuan, atsedeen hartu ezin gabe (ja!), jo ta ke irailako azterketetarako ikasten; eta dena, irakasleek gorroto dietelako (baietz!).

Beno ba! Bejondeizuela! Eta ondo ibili eta gutxi gastau. A! eta gogoratu: "Ven y cuentalo", hau da, kanpora zoaztenok bueltan etortzeko eta..., kontatu bai! (ezetz esatea alperrik izango da), baina egindakoak (edo eginbakoak) eta ikusitakoak exajeratu gabe.

Enrike Gorrotxategi



## "Txin-txin, txin-txin"

**H**orrela dio aspaldiko kanta za-  
harrak, "txin-txin, txin-txin di-  
ruaren hotsa..." urte osoa lanean


ihardun ondoren hemen gaude udan, opor garaian. Batzuk oporretan jadanik, beste batzuk berriz hartzeko desidatzen.

Izen buruak dion moduan diruak muga ditzake gure oporraldiak baina oporrak igarotzeko aukera asko eta ezberdinak daude. Badira adibidez bertan gelditzea gustokoa dutenak herri giroan edota inguruko hainbat herri politetan, (ez dugu ahaztu behar kostalde eta mendi ezin hobea dugula, festa ugari eta jaki ederrekin), beste batzuk berriz eguraldia dela eta hegoaldera jotzen dute, eta niretzat gustokoena urrutiko txokoak ikustera joaten direnak, ohitura ezberdinak, paisaia exotikoak, jendea, etab.

Egunero ditugu egunkari eta hainbat bidai agentzia aukera ezberdinak eskaintzen. Munduko paradisuak ederrenak saltzen dizkigute, dena dago salgai, kuestioa hotelak eta apartamentuak betetzea da. "Zatozte, zatozte denak" esaten digute antxinako traperoen modura. Baina guzti honek badu bere alde txarra ere, ingurunea aspaldi ahaztu genuen eta lehen paradisuak ziren hainbat txoko gaur egun hondatu ditugu. Edonon egiten dituzte etxeak, hotelak edota jatetxeak, orain dena dugu eskura, nekatu gabe eta oinetakoak zikindu gabe. Lehen mendira joan eta mendikadaxo bat egin ondoren gustora hartzen genuen salda edo txorizoa borda zaharretan, orain ez, orain hainbat menditara pistak eginak daude eta bertaraino dauzkagu kotxeak. Zaindu dezagun ingurunea! gure arbasoek eman zigutena.

Bueno, oporretan gaude eta guztiok ondo-ondo ibiltzea nahi nuke. "Ondo pasau, gutxi gastau eta bueltak amari".

Eguzkiñe Odriozola



## GOIBEKOKALE

**Argitaratzailea:** Elgetako Gazte Asanblada. **Gudarien Bidea 2. Elgeta 20690.** **Laguntza berezia:** Ozkarbi elkarte. **Zuzendaria:** Iban Arantzabal **Koordinatzailea:** Ana Gillegi. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Ana Gillegi eta Bittor Gallastegi. **Erredaktoreak:** Oxel Erostarbe, Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Eider Sarasua eta Iker Irazabal. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Argazkien errebelaioa:** Txuri-Beltz argazkizale taldea. **Komikia:** Igor Arizmendiarieta. **Horroroskopoa:** Aitor Ubera. **Kolaboratzaileak:** Enrike Gorrotxategi eta Eguzkiñe Odriozola. **Administrazioa:** Esti Retolaza eta Susana Jimenez. **Publizistak:** Onditz Billa eta Eider Etxaniz (Tel: 789085). **Banaketa:** Ikastola. **Tirada:** 600 ale. **Inprimategia:** GERTU koop (Zubillaga Oñati). **Copyright-a:** EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538.

## Autobus zerbitzua Eibarrera

Uztailaz geroztik autobus zerbitzua dago Eibarrera joateko. Astelehenetik ostiralera Elgetatik Eibarrera eguerdiko 2:00etan. Eibartik Elgetara, 13:30etan eta gaueko 20:50etan.

Jai egunetan: Elgetatik Eibarrera, 12:30etan eta 19:30etan; Eibartik Elgetara, 12:00etan eta 19:00etan.

**Abuztuan ez da zerbitzurik egongo.**

## Euskarako matrikuletarako diru laguntzak

Euskara batzordeak, Elgetan euskarako klaserik ematen ez dela ikusita, euskara ikasi nahi dutenei matrikularen 2/3 ordaintzea proposatu du. Diru laguntza jaso nahi dutenek matrikularen ordainagiria eta klasera joandakoaren agiria erakutsi beharko dute. Jubilatuek ere laguntza honetarako eskaria egiteko aukera izango dute.

## Tamaina handiko trasteak biltzeko eguna aldatu da

Abuztutik aurrera tamaina handiko trasteak biltzeko hila beteko lehen ostiraletan egingo dela zehaztu du Osasun batzordeak. Aldaketa, Mankomunitateko Ingurugiro Sailak eskatu du.

## Herriaren gasifikazioaz

Uztailaren 15etik etxeko gas hornidurari buruz ari dira galdezka eta aukerak banaka-banaka aztertzen. Udaletxeak teknikoiei laguntza ematea eskatu du, lehenbailehen egiteko.

## PLATER TIRAKETA ETA EHIZA TXAKURREN LEHIAKETA

Plater tiraketa uztailaren 7an izan zen. Bertan, Elgetako 28 lagunek hartu zuten parte, hauetako bi 18 urtetik beherakoak ziren.

Hasierako tandan, 12 platerri tiro egiteko aukera izan zuten. Tanda honen bukaeran, Jose Luis Irtzabal eta Jabier Bolinaga berdindurik genituen bakoitzak 11 plater hautsita. Hauen atzetik beste 7 partaide bakoitzak 10 plater hautsita. Beste txanda baten ondoren, irabazle, Jabier Bolinaga suertatu zen, 2.J.L Irtzabal eta 3. J.M Elortza.

### Txakurren Lehiaketa

Uztailaren 14an berriz ehiza txakurren lehiaketa. 16 zakur izan ziren lehian. Ikusitakoak ikusita, maila nahiko eska-

sa erakutsi zutela aipatu beharra dago, lau edo bost kenduta bestek nahiko trakets aritu baitziren.

Azken sailkapenean, Te txakurra gelditu zen garaile, jabea J.L Irtzabal. Honen atzetik Kiskur, Mendi eta Black gelditu ziren.

Bi sari berezi ere egon ziren, "muestra" eta "kobro" onenei. Irabazleak, Kiskur eta Black.

Epaile lanetan, Juan Martin Elortza aritu zen eta Jorge Bolinaga tiratzaile.



## ABUZTUAK 5, SALBADOR JAIAK

Aurten ere abuzturako Salbador jaiak antolatu dituzte. Egitaraua honakoa:

### Abuztuaren 5ean:

14:00etan Jaien hasiera: etxafloeroak eta kanpai hotsa.

18:30etan arbola igotzea eta bolatokia martxan ipiniko da.

20:00etan Uitxe eta Goiorekin kalejira.

23:00etan Irurok taldearekin dantzaldia eta gaupasa Uitxe trikitaliarekin.

### Abuztuaren 6an:

11:00 txorizoa eta salda.

12:00etan Meza Salbadorekin.

12:30etan Bertsolariak

Zuzen eta Biurriren erakustaldia.

Gelatxo taldearekin erromeria.

14:30etan Bazkari herrikoia Panaderokua tabernan.

18:00etan Bizikleta lasterketa salbadorra neska-mutikoentzat.

18:30etan Bolo Txapelketa. Erromeria Gelatxorekin.

22:00etan Rock Jaialdia Gaztetxean.

23:30etan Gelatxo taldearekin erromeria goizalderarte.

Abuztuaren 6an egingo da zozketa O.N.C.Eko azken lau zenbakiekin. Jokuan, bi banastakada eder eta txartelak salgai 100ptan.

**IGANDE**  
**GOIZETAN ERE**  
**ZABALIK: 9-12.**

**IFEA**

Tel: 76 80 98.

**ALDI**

**M<sup>a</sup> Karmen**  
**Lenzeria**

Lenzeria eta kosmetika gaiak

Salbador zeharbidea.

Tel: 789040

**E**  
**D**  
**HARATEGIA**  
**A**  
**S**  
**T**

S. R. Ke 6  
Tel: 768168.



## ELKOROK LEHEN TXAPELA LORTU DU - Capellanekin batera 22-20 gainditu zituzten Eugi eta Arretxe-

Aurreko urtean Alustiza lagun zuela azpitxapeldun izan ondoren aurten garaipena lortu du Aitor Elkorok Euskadiko Binakako II. txapelketan. Berak eta Capellanek sailkatze fase bikaina egin ondoren biktimatzat joan ziren finala jokatzera, sailkatze faseko azken partiduan, finalean euren aurkakoak ziren Arretxe eta Eugiren aurka errez galdu baituzten (22-12).

Labriten jokatuako finalean, hasiera-hasieratik, Aitor eta Capellanek

aurrea hartu zuten, Aitorrek atzealdean erakusten zuen nagusitasunaz Capellan oso ongi aprobetxatzen baitzen. Horrela bada, partidu erdirarte aurretik joan ziren diferentziarik handiena hiru tantotakoa izan zelarik. 15. tantu inguruan Aitorren nekealdia eta Capellanen erru ulertezinez baliatuz Eugi eta Arretxe 19-15 aurreratu ziren baina ez zuten diferentzia hori aprobetxatzen jakin eta Aitorren partidu bukaera ikusgarriari esker - 90 minutu jokatu ondoren

Arretxe ia errebotean eduki zuen azken tantuetan, 22 eta 20 irabaztea lortu zuten.

### San Ferminetan ere garaile


Garaipen bolada jarraituz, udan jokatzeko diren torneo garrantzitsuenetakoa irabaztea lortu du oraingo honetan Titin II.a bikote duela. Finalean, joko ikusgarria eta gaur egungo atzelari onena dela erakutsi zuten. 7 tantutan utzi zituzten Errandonea eta Alustiza.

## 50 GAZTE UDALEKU IREKIETAN

Hiru astetan zehar beteta izan dute agenda gazteenek. Hiru urtetik hasi eta hamabi urterainokoek goiz alaiak pasatu dituzte. Begiraileen esanetan helburu asko: elkarlana bultzatzea, errespetua lantzea, lagunartea zaintzea, jokuak ikastea... eta batez ere euskara ahotan dela ondo pasatzea izan dira.

Batzuentzako hondartzara joatea izan da gehien gustatu zaiena eta piszinetan bainatzea beste askori. Hondartzara eta piszinetara joateaz gain aktibitate ugari egin dituzte ha-

mabost goizetan zehar: herri kirolak, Asentziara irteera, Aixola presara, antzerkia, Txiskola lehiaketa, kirol ezberdinak... eta bukatzeko "azken jai". Hurrengo urterarte agurtu eta abuztuari paso eman diete. *Goibekokalek* moduan gazteek ere oporrak hartu dituzte. Gehienek irailaren bukaera arte. Suerte gutxiago izan dutenek lehenago hartu beharko dituzte liburuak. Zer egingo diogu ba... datorren kurtsioan gehiago saiatu eta uztailean berriz udalekuak.



**IBAIBA-  
RRIAGA**  
GARRAIOAK

Tel: 768072  
Salbador zeharbidea 2  
ELGETA

Tel: 76 81 31  
M<sup>a</sup> Jesus  
Arrazola

**VIVO**  
Janari  
denda

**Goio Sarasua**  
Igeltzeritza lanak

Telatuak  
Sukaldeak  
Komunak

Olzango Behekoa Baserria. Tel: 860156

## Gamarrara egun pasa

Aurreko urtietan bezelaxe, aurten ere nahi daben guztientzat, datorren astelehenian hilak 29, Gamarrako piszinetara irteera egingo da. Izena emoteko deitu liburategira, preziua 1.500 pztakoa izango da. Autobusa goizeko 11etan irtengo da Angiozartik eta arratsaldeko 8ak aldean bueltauko da.

## Uda-aisialdi eskeintza gaztetxoentzat

Elisabet Garitano, gazteak eta Mila Elortza, Kultura dinamizatzaileak antolautu, uztailearen 1ean hasi eta 15era bitartian, 3 eta 12 urte bitarteko gaztetxuak izen dabe goiza zela pasatu; danetik egin dabe: jolasak, irriati-tailerra, olinpiadak, nikixak margotu eta San Fermin egunian Angiozarko kalietan zihar "entzierroa" ere izan genuen. Ez dabe ez aspertzeko denborarik izan!.

## Buzoi aldaketa

Parteitxi auzoko biztanleei karta banaketa egunero egin ahal izateko, buzoiak Garrastegi gueneko bidekurutzetik eskola aurrera aldatu ditugu. Hasiera batian batzuk buzoia topau ezinda ibili die la ere badakiu, beraz barkatu sortutako kaltiengatik, aurrerantzian denon mesederako izengo dala-kuan gare.

## KULTURA DIPUTATUA ELIZAMENDIN

Joan zan eguastean, hilak 17, Koruko Aizarna, Kultura diputatua Elizamendiko ermitta ikusten egon zan. Bertan esan zebanez, uste baino egoera okerragotan dago eta konponbide bat topatzeko asmoz, lehenengo azterketa geotekniko bat ein behar omen da, ermittako paretetan eta lurrean haundituz doiazan brintzadak azpi-lurraren labanketak eragindak direlako.

Arazoa, orain dela urte dezentetik dator, baina azkenengo bi hiru urte hauetan, paretetako eta lurreko brintzadak asko haunditu die eta, berehalako konponketaren bat egitea behar beharrezkoa da.

Kultura diputatuak esan zebanez, Gipuzkoa mailan, hiru urteko iraupena izengo daben plan zuzentzaile bat egiteko asmoa dauke eta Elizamendiko konponketa plan horren barruan sartzia espero dau. Plan horren barruan altareko erretablua ere konpontzeko asmoa dauke sitsak jota dauelako.

Elizamendiko ermittan urtian zihar, San Antonabat, Andramaixa Martikoko umeen bedinkaziñua, pazkua astelehenian (azken bi urteetan, ospatu ez den arren) eta Andramari egunean emoten da mezia. Hurrengo urtietan horrela izan daixen neurrixak berehala hartu biharko die!!



Elizamendiko egoera agerikoa da.

Taberna Zaharra  
jatetxea


Bazkari eta afariak tel: 76. 21. 21

Angiozar

Zure publizitatea hemen  
azaltzea nahi baduzu deitu  
telefono honetara:


78.90.85

# LEHIAKETA



Ale bat gehiago afariak ematen. Afariak eman bai baina trukean gauza simple bat eskatzen dizugu. **Goibekokalera** idaztea eta noski erantzun zuzena ematea.

Oraingoan ere karta asko baina erantzun zuzen gutxi. Urrean denak ibili dira baina ez ditugu guztiak onartu. Behiak direla? ba ez. Zezenak direla? ezta. Zaldiak? Ezetz. Pare eder hau txahal pareta da eta halaxe erantzun behar zenuten, **Paula Larrañagak** erantzun duen moduan hain zuzen. Horregatik eta zozketan aukeratua izategatik birezako afaria beretzat izango da Ostatu jatetxean.



Animaliak eta pertsonaiak alde batera utzi eta iruki desenfokatu hau zein txokotan dagoen esan behar diguzue. Afaria dohain jan nahi duzuela? orduan Idatzi!!!!

Elgetako zein tokitan atera dugu argazkia?

Zuen erantzunak bidali **Goibekokalera**, Salbador kalea 2 kultur etxea, Elgeta.

Izena eta abizena: \_\_\_\_\_

Erantzuna: \_\_\_\_\_

Bizilekua eta telefonoa: \_\_\_\_\_

## KOMIKIA



# Zelakuak dia zure ametsetako oporrak?



Jubilatua (73 urte)

Ni bakasinotan ointxe izan nai, aparteko leku baten izan nai Saloun, ametsetan bezala pasau dou andriak eta bixok alabiak han daukan etxian. Han egoten zazen bitxartian etxeko prekusino guztiak ahazten jatzuz.



Sukaldaria (32 urte)

Nere ametsetako oporrak diru ardura barik, neikua lo eiñ, familixiakin... Aburritzeko egunak euki, batzui ez jakue hori gustatzen baina neri aburritzia gustauko jatan, berdin dosta hondartza edo mendixa baina hori bai trankil, eguraldi ona egon ezkeru bertan eta txarra eiñ ezkeru hemen goikoaldian.



Etxekoandria (29 urte)

Inork molestaturik ez zoztan hondartza batian, ur garbixakin, gizonakin, hemendik nahiko urruti lurralde edo herri exotiko batian.




Bihargina (50 urte)

Hilebete Suizan familixiakin, gastu guztixak ordainduta, hango parajiak eta herrixak ezagutu, eta Alpiak ikusten.



Bihargina (28 urte)

Oporrak zenbat eta urrinau hobeto, gero ta zarrau gero ta gertuau, mendixa eta hondartza bixak hartuko nituzke, ez loztake inportako eta ni juan ezkeru edozeinekin juango nintzake.



Ikaslia (15 urte)

Nere ametsetako oporrak izugarrixak izango zian, Hawaii aldian neska morena alta xamar batekin eta ahal dala lagunekin.





♈	<b>Aries:</b> Suizako bonboi bat baño gozuaua za.
♉	<b>Taurus:</b> Botella hutsak ez dau ezer pentzatzen? betia etara.
♊	<b>Geminis:</b> Jokuak ikasi eta gero eiñ. Tranposo!!
♋	<b>Cancer:</b> Pastel dana jan eta gero ez eskaiñi. Goloso.
♌	<b>Leo:</b> Ziero biziau baño lenau geratu, bisioso!!
♍	<b>Virgo:</b> Ainbeste kostatzen jata... eztok/n ezer eitten eta.
♎	<b>Libra:</b> Irakurri baño lenau ez da liburua hartu bihar?? Kultu.
♏	<b>Escorpio:</b> Oporretan kontuz kotxiakin eztotzu gauza onik ekarriko eta.
♐	<b>Sagitaris:</b> Zure lagunari eiñ gonbita eta juan Zaldixan ibiltzera.
♑	<b>Capricornius:</b> Txikixena izan arren etxaok/n mahaipian eskutau biharrik.
♒	<b>Acuarius:</b> Frantziara bidaitxo bat zoragarri etorriko jata, animo.
♓	<b>Piscis:</b> Agostuan itsas goraberekin batera ibiliko da zure gorputza, argi ibili orduekin.

## Enrike Perez (Txikiturri) Bihargina (24 urte)

**Zer moduz jaixak?**Ondo.  
**Dantzan eitteko tabernak ala plaza?**Taberna, plazan jende guztixak ikusten zaittu.  
**Lanik eiñ dozu jaixetan?**Asko ez, piskat.  
**Zer da zure lanetik gutxien atsegin dozuna?**Jentia aguntatzia.  
**Gogorra da daukazun lana?**Ez, txoiua.  
**Zer nahi ziñuan izatia txikitant?**Kamionerua.

**Nor joko ziñuan eskobiakin buruan?**Jende asko, laubat badare herrixan.  
**Oporretan nonbaitera joaten za?**Ez, inguruan geratzen nai.  
**Ondo pasatzeko mendixa ala itsasua?**Mendixa, baina itsasua txarto be etxaok.  
**Zek eiñgo zintuan zorientsu?**Dirua eta neskalguna eukitzia.  
**Urteko sasoirik gustukuena?**Udia.  
**Eguraldi berua ala hotza?**Igual dozta.

**Irakurri dozun azken liburua?**Eskolara juaten nintzianian be ez neban irakurtzen, banakan

bat *Tuaret* ena baina irakurtzen hasi ta beti leku berean lagatzen neban, hasieria bakarrik dakit.  
**Kanturik gogokoena?***Waias-Waias.*  
**Trikitixa ala makailua?**Bixak, neri berdin dozta.  
**Loterixa tokatuz gero ze eiñgo ziñuke lehenengo?**Hamabost egunerako hemendik ezkutau.

**Gorputzeko atalik politxena?**Ez dot uzte gauza politx asko dakatenik. **Ze koloreko pixama daukazu?**Pixamak umore txarrez jartzen nau.  
**Nor ikusiko ziñun gustora kaliak garbitzen?**(Barre eiñ dau) Herrixan daon listo askotakon bat.  
**Kirolik gustukuena?**Kirolak ez jataz asko gustatzen.  
**Zertarako da udia?**Ahal dan onduen pasatzeko.  
**Ze eiñgo dozu abuztuan?**Lana badago zeoze eiñ eta

oporretan banago bizikletia hartu eta hondartzara juan.



**ANA LIBURUDENDA**

Zatoz beste dimentsio batetara. Tel: 768078

**HAIZEA**  
**TABERNA**

giro atsegina lagunartean egoteko.  
Tel: 768256

## J.L. UBERA: " ELGETAN EZ DAGO PELOTARAKO AFIZIORIK "

Juan Luis Ubera aski ezaguna da pilota munduan, bai Elgetan eta baita Euskal Herrian ere. 4 t' erdiko txapelketa amaitu berri dela eta berarekin hitzegin dugu txapelketa-ko balantzea eta pilota munduko beste zenbait gaiz. Bere ustez "Berraondo izan da txapelketa-ko pilotaririk onena eta beste pilotari guztiek beraien mailan jokatu dute".



Juan Luis Ubera txapelketa honetan errebelazioa izan den Ruizi txapela jantzi zioten unean.

- Ze balantze egingo zenuke aurtengo txapelketari buruz?

Balantzea positiboa izan da. Hasieran zenbait duda genituen baina dena ondo atera da. Bide batez, lagundu diguten enpresa guztiei nire esker ona agertu nahi nieke.

- Zein izan da pilotaririk destakatuena edo gehien harritu zaituena? Eta dezepziorik handiena?

Nire ustez pilotaririk onena Berraondo izan da. Orokorrean pilotari guztiek beraien mailan jokatu dute eta ez dugu inongo pegasarik izan errendimendu aldetik.

- Jendeak espero bezala erantzun al du?

Bai. Jende ugari etorri da aurtengo ere. Aipatu beharra dago

etorri diren gehienak kanpokoak izan direla, Elgetan ez baitago pilotarako afizio handirik.

- Zer iruditu zaizu Elkororen garai-pena? Elgetan zaletasuna gehituko duela uste al duzu?

Elkororen garai-pena oso ederra eta ona izan da, bai berarentzako eta baita herriarentzako ere. Bestalde, zaletasuna indartzeko beti da ona herrian izar bat egotea mutikoek imajina bat hartzen baitute.

- Zer esango zenioke pintadak egin zituztenei?

Gai horren inguruan ez dago ezer esateko. Nahiago dut komentariorik ez egitea.

- Ze mailatan dago gaur egun pilota Elgetan?

Aspaldiko urtee-

**BILTEGI  
DENDA**

Kirol, Burdin, Menajea.  
Zugandik gertu, behar  
duzun beste.

**SALBADOR 24**  
Tel: 76 82 06



**GRONDO**  
elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola, 26. Kataide industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa.  
Tel: 797815/771042 Faxa: 771476 ARRASATE.

tan egon den mailarik onenean. Elkoroz gain, Elgetako taldeak Euskadiko txapelketa, Deba Arroko hiru kategoriatan txapelketa eta beste zenbait torneo irabazi ditu.

**- Zein da Elgetako txapelketatik pasatu den pilotaririk onena?**

Txapelketa honetatik gaur egungo pilotaririk onenak pasatu dira. Txapelketa irabazi dutenen artean Beloki, Eugi eta Nagore daude eta Errasti, Elkoro eta

Unanue, besteak beste, txapelketa honetatik pasatu dira.

**- Pilotariek "kapritxo" asko al dituzte?**

Maniak dituztenak badaude. Kirolari guztiek dituzte eta pilotariek ere bai.

**- Bitxikeriarik gertatu al zaizue aurten-go txapelkan?**

Ez. Aurten ez zaigu aparteko bitxikeriarik gertatu.

*Elkoroz gain aspaldiko urteetan egon den mailarik onenean dago Elgetako pilota.*



Pilotarien aurkezpena txistularien laguntzaz egin zen.

**- 4 t'erdiko txapelketa irabazlea -**

**ARITZ BERRAONDO: "TXAPELKETA GOGORRA IZAN DA"**



**-Zer iruditu zaizu Txapelketa?**

Txapelketa nahiko gogorra izan da. Hasieran ez nintzen ongi ibili eta hain urruti heltzea ez nuen espero, baina finalerdietan ondo jokatu ondoren irabazteko aukera ikusi nuen. Gogorra izan da.

**-Garaipen hau lortu ondoren ze helburu dituzu?**

Udan partidu batzuk jokatu ditut eta gero ikusi egin behar.

**-Zer sentitzen da hain txapelketa garrantzitsua lortu ondoren?**

Poz sentitzen da, txapelketa honek urteak pasatu ahala garrantzi handiagoa baitauka. Poz handia sentitzen da.

**- Nori eskeintzen diozu txapelketa?**

Lehenik eta behin Antzuolako herri guztiari eskaini nahi diot. Eta baita orain dela hilabete gutxi eraman zituzten Patxi eta "Pollero"ri ere.

**-Pilotari izateak laguntzen al du ligatzeko orduan?**

Ez.

**-Eugik, Belokik, ... txapelketa hau irabazi dute, beraien mailara helduko zarela uste al duzu?**

Horien mailara heltzea ez da erraza izango, gaur egun goi-goian baitaude baina ahaleginak egingo ditugu.


**-Profesionalerara pasatzeko intentziorik?**

Hori ez dago nire esku. Nik ahaleginak egingo ditut partidu guztiak ondo jokatzeko eta gero enpresariek erabaki dezatela.



**KONTXI  
ARRANDEGIA**  
Salbador 5 Tel: 768009

**EROSLE**



**M. Asun Agirre**  
Salbador 26. Tel: 768190

Berezitasuna:  
Buztana. Pintxo  
gozoak,  
otartekoak.

**BOLATOKI**  
TABERNA-JAETEXEA



tel:768284

## Zuaza

**Kaixo Goibekokaleko irakurle guztioi. 6.mailako ikasleak gara berriz ere eta Zuaza irlako gure abenturak eskainiko dizkizuegu.**

Lehenengo egunean Elgetan autobusa hartu eta Gasteizera joan ginen. Bertan leku mordo bat ezagutu genituen. Adib.: parkeak pasealekuak, katedrala (kanpoaldek) ... Gauza guztiak oso politik izan ziren.

Bazkaldu Florida parkean egin genuen, arratsaldea ere bertan egin genuelarik.


Arratsaldean autobusa hartu behar genuen ueña baino lehen euria hasi zen. Gu Zuazara iritsi arte edo gehiago.

Hara heldu, gauzak gure dendetan utzi, piska bat jolastu eta afaltzera joan ginen. Zera afaldu genuen: lentejak, San Jakoboak eta

flana.

Afaldu ondoren, jolastu eta 10:30etan ohera joan ginen, baina hamaiki ingurura arte ez ginen lokartzen hasi.

Hurrengo egunean jaiki eta gosaltzera joan ginen: esnea "Cola cao" arekin, mermelada, mantekila, madalena bat eta ogia genituen gosaltzeko. Gero dendetara joan, bainujantzia jantzi eta optimis egitera joan ginen. Ordubete inguru iragan genuen txalupa txiki haietan alde batetik bestera ibiliz. Handik irten eta batzuk bainatzera joan ziren eta besteok dendetara. Sikatu eta arropa sikuak jantzi genituen bazkaltzera joateko. Bazkaltzen garbantzoak, hanburgesa eta brindoia jan genituen. Gero jolastera joan ginen. Ondoren bainatu eta surfin egitera



Horrelako dendetan egiten genuen lo.

joan ginen. Batzuk belan ere ibili ziren baina beste batzuk ez ginen ausartu eta ez genuen egin.

irten eta dendetara joan, azkar lehortu, jantzi eta afaltzera joan ginen. Espagetiak solomoa eta iogurta jan genituen. Ondoren berriz ere jolastu egin genuen. Egunaren amaieran ohera joan ginen.

Hurrengo goizean jaiki eta dena prestatu genuen etxera itzultzeko. Ondoren gosaltzera joan ginen aurreko eguneko berdina eman ziguten gosaltzeko. Madalena beharrean kurasan txiki bat eman ziguten. Gero pedaletan ibili ginen euria hasi zuen arte.

Geroxeago dendetara joan, gure maletak hartu eta bazkaltzera joan ginen. Bazkaldu eta gero piska bat itxaron eta txalupa hartu genuen autobusera joateko. ondoren maletak hartu eta Elgetara.

Hori izan da dena.

6. mailakoak

Handik



Gu guztiok txalupan autobusa hartzera gindoazela. Elgetara itzulera.

**OSTATU**  
**JATETXEA**

Gudarien Bide  
Tel: 76 80 23  
ELGETA

Eguneko menua 800 pzta.  
Karta.

**zeleta jatetxea**

tel:768151

gustora  
sentituko  
zara.

## TXIBIAK BERE TINTAN

Sukaldaria: Miren Amaia Osoro.  
(Zeleta Jatetxea)




### NOLA PRESTATU:

- Txibiak garbitu.
- Gatza egin eta txibiak irinetan pasatu. Ondoren oliba oliotan egin.

### SAL TSA PRESTATZEKO:

- Kipula, piper txorizeroa, azenarioa eta tomatea dena batera egin.
- Barazkiak prest daudenean, arrain salda eta tinta bota, ondoren txinoan pasatu.
- Saltsa txibiei bota eta dena nahastu.

### OSAGAI AK:



- Txibiak
- Kipula
- Oliba olio a
- Gatza
- Txibien tinta
- Piper txorizeroa
- Azenarioa
- Tomatea



**Gomendioa:** Platera hobea izango da arraina freskoa bada. Saltsa prestatzeko kipula gorria bada askoz hobeto, saltsa sikatzen bada arrain salda bota.



Jesús Mari Montiel  
**ITURGINTZA  
ETA BEROGAILUAK**  
Aretkale 3.  
Mo: 908773950 Eibar Tel: 700719

**KONPONKETAK SUKALDE  
ETA BAINUGELATAN**



**IRAMA**

Instalazioak eta mantentze lanak

24 orduko zerbitzua  
mensatel: 900282828  
abonatu a: 247262 tel:  
789057-768025

## OSA ONENA EUSKADIKO MENDI KRITERIUMEAN

Bigarren urtez jarraian Unai Osa itziartarrak ez zuen aurkakorik izan Elgetan afizionatuen tzako egiten den lasterketa irabazteko.

Lasterketa oso bizia izan zen. Hasiera-hasieratik ihesaldiak egon ziren. Karrera hasi eta Salbadorrera heltzeaz bat hiru txirrindularik ihes egin zuten -Perdiguero, Goñi eta Horrillo- asko iraun ez arren. Angiozarko igoeran jadanik lasterketa irabazteko faboritoak aurrean. Elorriotik Elgetara bidean Osa, Castresana eta Del Olmo bateratu eta aurrera jo zuten. Azken igoeran Osak ihesaldiko bi lagunak atzean utzi zituen eta bakarrik iritsi zen helmugara.

### Askasibar atzean

Lasterketa honetako gure ordezkari bakarrak, Oskar Askasibarrek, ilusio handiak zituen jarriak lasterketa honetan, eta baita bera jarraitzen dugunok ere. Azken karreretan postu bikainak egin ondoren -azken hiru lasterketak lehenengo seien artean bukatu zituen- hainbat arrazoientatik (presioa...) ez zuen bere maila erakutsi eta hasieratik atzean geratu zen. Ala eta guztiz ere azken partean errekupe- ratzea lortu zuen eta eginiko ahale- gin handia eskertzeko helmugan (lasterketa osoan bezala) izugarritz- ko txalo zaparrada jaso zuen.



Oskar Askasibar irrifartsu lasterketa hasi aurretik

## BERRAONDO ETA RUIZ 4 T' ERDIKO TXAPELDUN BERRIAK

Aritz Berraondo antzuola- tarra sub 23 mailan eta Ruiz (Lizarra) jubeniletan izan dira aur- tongo garaileak 4 t'erdiko XXI. txape- lketan, Otaegi (Azpeitia) eta Etxaniz (Azkoitia) gainditu ondo- ren hurrenez hurren

Lehenengo finalean Etxan- niz zen faboritoa, eta partidu ha- siera ikusita pronostikoak beteko zirela zirudien. Sakeaz baliatuz 9-6 aurreratu zen eta partidu guztian zehar diferentzia mantendu eta haunditza lortu zuen 17-12ra hel- du arte. Partidua erabakita zegoela zirudienean, Ruizek sakea berres- kuratu eta denon harridurarako 18. kartoira joan zen zuzenean. Aipatzekoa da Lizarrako gazteak

egin duen txapelketa.

Partidu nagusian, Berra- ondok ez zuen arazo handirik izan Otaegiri irabazteko. Azpeitiarrak partidu erdialdera arte eustea lortu zuen (10-7) baina pilotari ematen dion abiadura aprobeztatuz ia zu- zenean 22. tanturaarte joan zen.

### Elkorori omenaldia

Bi partiduen artean Euskadiko Binakako txapelduna izan den Aitor Elkorori omenaldi txiki bat egin zitzaion. Pelotalekura hurbildu ziren denek txalo zapa- rrada izugarria eskaini zioten Elgetakoari.

### Goikokale Bekokale derbya arrakastatsua gertatu zen

Goikokalek eta Bekokalek jokatu zuten derbyak bai partaide- tza aldetik eta baita giro aldetik ere arrakastatsua izan zen. Nesketan Bekokalekoak izan ziren nagusi 7 eta 3ko emaitzaz. Mutiletan berriz, Goikokalek irabazi zuen 10 eta 8. Partidu bukaeran eztabaiba txiki bat sortu zen, Bekokalekoek bi partiduak kontutan izanik beraiek irabazi zutela esaten baitzuten eta Goikokalekoek berriz, nesken eta mutilen partiduak ezberdindu egin behar zirela. Eztabaidarik sortu ez dadin urrengo batean legeak aurre- tik erabakitzea izango da onena.

### Txirrindularitzako zozketa:

1. saria: 2009
- Orbezko zenbakia: 2140
2. saria: 4051
- Ordezko zenbakia: 1451

# ZABALA

Lasao 6 Elgeta  
Tel: 768075-6 768225  
Faxa: 768201



# HERMANOS S.A.

EHIZARAKO  
ESKOPETA EGILEA

# J.M. OTXOA : "RUGBYA KIROLIK NOBLEENA DA"

Aurreko urtean hasi genuen bideari jarraituz, aurten ere ohikoak ez diren kirolei tartetxo bat egin nahi izan diegu. Oraingo honetan Rugbya aukeratu dugu. Kirol honi buruz gehiago jakiteko Juan Mari Otxoa eta Oier Villarekin egon gara.


-Nola sartu zineten mundu honetan?

Juan Mari: Gehienbat lagunak bultzatuta sartu nintzen.

Oier: Kirol piskat egitea nahi nuen eta lagun batzuen bidez Rugbyan jokatzeko hasi nintzen.

-Zer behar da Rugbyan jokatzeko?

J.M.: Ez da ezer behar, gogo piskat besterik ez.



Arrasate Rugby Taldeak aurtengo denboraldia errepikatzen saiatuko da.

-Zer esango zenioke Rugbyan hasi nahi duenari?

O: Lagunak eta juerga nahi badute apuntzateko. Ez da ezer behar gogo piskatekin nahikoa da.

-Jende askok uste du Rugbya "animalientzako" kirola dela. Zer esango zenieke horrela pentsatzen dutenei?

J.M.: Gezurra dela. Rugbya deporte "nobleena" da eta lagun asko egiten dira.

-Ze postutan jokatzeko duzue?

Biok postu berean jokatzeko duzue: "Segundo zentro" eta "ala".

-Aurten mailaz igotzea lortu duzue? Ze helburu daukazue datorren denboraldirako?

O: Ahalik eta hobekien jokatu eta ahal bada kategoria mantendu.

-Noiz arte Rugbyan?

J.M.: Bost urte eman ditut jokatzeko eta uzteko garaia heldu dela pentsatzen dut.

O: Gorputzak eta gogoak irauan arte.

-Taldekoen artean giro ona al dago?

O: Bai, giroa oso ona da. Izugarritzko afariak eta juergak egiten ditugu eta jokatzeko ari garenean denok bat gara.

*Oier: "Gorputzak eta gogoak irauan arte jarraituko dut".*

-Dirulaguntzarik jasotzen al duzue?

J.M.: Gutxi jasotzen ditugu. Lehen jasotzen genuen baina orain gero eta gutxiago.

-Posible al da Elgetan talde bat ateratzea?

O: Ez dut uste. Rugbyan jokatzeko moduko jendea badago, baina serio hartu beharko litzateke (entrenamenduak,...). Bestalde jende asko behar da Rugbyan jokatzeko eta Elgetan ez litzateke egongo behar beste.

-Zuen idoloak?

O: Lomu eta Linagh

J.M.: Lomu



Tel: 76 81 67

Elorrio bidea z/g 20690 Elgeta  
Tel: 768050-789031 Faxa: 768243

**TAPEM, S.A.**

Trokela eta estanzazioa  
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK

**Hozkailuak eta izozkailuak aire girotua.**

Salbador 21  
Berraondokua 7  
Tel eta faxa: 78 90 46


## AIXOLA: ERROTA ETA TELLERIEN KOKAGUNE (V)

- Ur bedeinkatuko baserrian begizkoaren aurka ura bedeinkatzen zen-

Aixolako inguruak ur biltegi eder bat izateaz gain badu historiak bildu ez dituen hainbat kontakizun. Esaterako bertan zeuden 6 errota edo teilak egiteko zegoen tokia. Gaztainondo eta pagadiz zein hariztiz betetako eremua omen zen. Gaur egun kontu hauek nagusienek soilik dituzte gogoan.

Aixolak haritz leku esan nahi du, eta garai batean, hariztiz eta pagadiz josita zegoen. Hala ere honek aspaldi behar zuen izan zeren Larrabiltxoko Mariak berak, hau ez zuela ezagutu esan zigun. Joan den mendearen amaieran eta oraingoaren hasieran, iria zegoen ugari eta gaztainondoak nonahi. Dena den gaztainondo guztiak lehortu egin ziren eta ez bakarrik Aixolako inguruetan, baizik eta Euskal Herriko bazter guztietan.

Pagadi eta hariztien desagertzea berriz, olen, ferrerien ondorioztat jo dute hainbat historialarik. Urbedeinkatun bertan inguruko olarik ezagunena zegoen. Zaldibartik ekartzen zen burdin meha eta harritzko bidea dagoen tokietan gurdiek utzitako arrastoak aurkitu dituzte. Burdina egiteko erabili zituzten pago eta hariztiak eta honekin batera garai hartan funtsezkoa zen



Txakilikua Ur Bedeinkatu atzean dagoen errota da. Gaur egun bertako belardien eta sasien ondorioz ia ez da nabarmentzen errotaren kokapena. Baina barnera sartuz gero han ikusiko ditugu errotari eragiteko bi burnizko iturri eta gainealdean leihatila bat.

ikatza lortzeko. Zuhaitz adarrekin ikatza egiten zuten eta enborrak berriez olatarako eta untzigintzarako ziren.

### Aixolan desagertutako telleria

Elgetatik beheruntz presaren ondoan telleria dago. Garai bateko etxe eta baserrien teilatuetan ez zegoen teilarik eta teilak izatea diru asko edukitzearen seinale zen.

Aixolan, teilak egiten zituzten eta honetan aritzeko lehengaia buztina da. Toki hau urtsua izateaz gain, aproposa zen lur edo buztin hori lortzeko eta Urbedeinkatu atzetik ateratzen zen gero teila bihurtuko zen buztin hori.

Teilak bazuten hala ere beste erabilera bat. Pinadi, zelai eta orohar edozein sail banatzeko mugarriak ipintzkoa. Lehen ere berdin baina azpian teila bat ipinita. Honela mugarriak bereiztea errazagoa zen. Gaur egun ere, askok erabiltzen dute teila horrelakoetarako.

### Errota leku paregabea

Lehen esan bezala, toki heze eta urtsuak dira Aixolako inguruak. Askotan ibili gara inguru horietan batera eta bestera eta erai-kuntza zaharretan erreparatu dugu, erreka ondota daudenetan. Ur bideen ondoan kokaturik gehienetan, 9 edo 10 errota zeuden garai batean Aixolako parajeetan murgilduta.



Ur Bedeinkatu azpian teileria. Garai bateko teilak hemen bildutako buztinez egiten ziren. Teilak izatea dirua izatearen seinale zuzena zen.



Txuloko errekaren albo batera, Txakilikua deritzan errota aurkitzen da. Txakilikua da aztarnarik garbiena. Gaur egungo belardi eta sasien ondorioz, nekez ikusten da sarrera eta batek baino gehiagok ikusi ere ez zuen ikusiko. Beraz kopapena zehazteko, Ur Bedeinkatu baserriaren atzean dagoela esango dugu eta argazkian ikusten den bezala arku txiki bat du sarrera modura. Baina argi bat eramatea komenigarri da barrukoa ikusteko. Harrizko eraikuntza duten hormak eta burnizko bi iturri ditu. Hortik irretzen zen ura errotarriak mugiarazteko. Hauen gainean bi leiho txiki. Martxan ipini zuten azkenetako aldia, gerra garaia izan zen.

Baina beste errota batzuk ere badaude edo arrastoak behinik behin:

Txakilikuan azpian eta erre-karen gainetik, Errota Azpi. Toki honetan etxerako kontrabandoa egiten zuten. Bizkaian merkeago ziren gauzak Gipuzkoan baino. Ogia, olio eta azukrea lortzen zuten horrela. Kontrabandoko gauzak, Bizkaira ematen zuten leihoan uzten ziren eta horrela Gipuzkoako mikelleteek ezin izaten zuten ezer egin.

Gero Ola Zaharra edo Ola-leku errota eta Felisenekua ondoren. Presaren azpian gelditu da errota hau.

Baltzola-Barrena edo Autxena Errota, gero Nafarrokoa. Denak daude uraren azpian eta hauekin batera Atzola Bekua baserria. Ate gotikoa zuen baserria eta dorre etxe bat izan zitekeena. Baserri paregabea zen.

Azkenik, Beko Errota dago.



Ur Bedeinkatuko baserrian begikoa kentzeko ura ematen zuten. Burnizko lepoko batetan Ama Birjinaren irudia zegoen.

Elgetan Oilakorta izenez ezagutzen da. Presa eusten duen hormaren azpian dago.

#### Ur Bedeinkatu edo Gurguriola

Presatik Elgetarantz dagoen baserria da. Jatorrizko izena

*Joan den mendean iria eta  
gaztainondoak ziren nagusi  
Aixolako inguruetan. Aurretik berriz  
pagadi eta hariztiak. Zuhaitz hauek  
burdinolekin batera desagertuz joan  
ziren. Gaztainondoak berriz, Euskal  
Herrian hedatu zen gaixo baten  
ondorioz.*

Gurguriola bada ere, elgetarrok beti deitu izan diogu Ur Bedeinkatu. Erortzen dagoen baserri honek badi aipatu gabe utzi ezin dugun istorio bat. Kontu zaharrek diotenez, bertako familiak mendetan zehar izan du lepoko berezi bat. Aspaldiko urteetan norbaitek begikoa botatzen bazizun edo begikoa jota bazeuden toki honetara jo behar zenuen eta lepoko honekin bede-

katutako ura hartu. Honela gaitz guztiak desagertzen ziren. Jendea Mallabia, Eibar, Elorrio, Durangotik... etortzen zen. Baina animaliak ere ekartzen zituzten. Esne txarra ematen zuten behiak berehala sendatzen omen ziren.

Lepokoa, Txakilikua baserria erre zenean aurkitu zen. Ama Birjinaren irudia duen lepoko bat da, burnizkoa eta oso pisutsua. Baserria saldu zenean jabe berriei eman zitzaizkien eta galdu ez bada Elorrioren egon daitekeen susmoa dago.

#### Baserriak

Aixola auzoan kokatutako baserriak ondorengoak dira:

Abeletxe, Mendrakorta, Oilakorta Larrosa, Aixola goikua eta Aixola behekoa (Azken hau lehen esan dugun moduan ur azpian dago). Larrosa baserria, presatik Elgetara gatzela, bide azpian aurkituko dugu. Jauzteko puntuan dago, sasien menpe. Beste lau baserriak Aixolako presaren inguruan daude banatuta.

**Errota gehienak uraren azpian gelditu badira ere, garai batean bazeuden 6 errota. Garrantzitsuena Txakilikua zen. Errota Azpin jabeek kontrabandoa egiten zuten Bizkaiarekin, etxeko sukaldeak Bizkaira ematen baitzuen. Gipuzkoako mikelleteek ezin izaten zuten ezer egin. Azken hau ur azpian dago, eta honekin batera Atzola Bekua baserria, ate gotiko bat zuen dorre-etxe bikaina zen.**

# Denborapasak

Denbora tarte bat entretenituta pasatzeko aukera eskaini nahi dizuegu oporrak gainean ditugula eta . Horretarako zer hobe denborapasak baino? Goiko aldean galdera da asmatu behar duzuen. Zein galdera egin diegu beraiek erantzun hauek eman ditzaten?

Beheko aldean dagoen denborapasa ezagunagoa da. Erreginaren kofaua.

## a- Zer galdetu diegu?



Sandra Gonzalez



Asier Unzetabarrenetxea



Leire Urgoitia

Eguzkia egiten du eta plaiak zabalik egoten dira eta baita piszinak ere. Eta ume asko irtetzen da etxetik eta paseatzera joaten dira eta denbora librea egoten da eta oso ondo pasatzen da.


Bero egiten du eta piszinak beteta daude, siesta botatzeko, udalekura joateko, bizikletan ibiltzeko, txokolata baino helatua hobeto jaten da, eta... a! eguzkia hartu eta errezago ligatzeko.

Piszinara joateko egun apropos asko izaten da. Eta hondartzara joateko ere. Eta seguru denok hartu duzuela eguzkia. Ez da egia ala? Opor asko ere badaude. Deskantsatzeko ordu asko ere badaude eta denbora librean umeak dibertitzeko.

## b- Erreginaren kofaua

Erantzun guztiek seinatzen dituzte letra dituzte eta zenbaki bakoitzaren inguruan kokatu behar dira. Hitzak ordu orratzen arabera osatu behar dira, abiapuntua zenbaki bakoitzaren gain- eskuinaldeko letra delarik beti.


- |                                |                                 |
|--------------------------------|---------------------------------|
| 1.- Azalekoak                  | 16.- Tarteak                    |
| 2.- Funtsa                     | 17.- Logura                     |
| 3.- Emakume gazteak            | 18.- Irmoa                      |
| 4.- Erasoarako ibilgailua      | 19.- Bikia                      |
| 5.- Burutuak                   | 20.- Erdi bideko                |
| 6.- Ura 100°C-ra heldu         | 21.- Sagar prentsa              |
| 7.- Ugari                      | 22.- Eria                       |
| 8.- Lurrin bainuak             | 23.- Aferrak                    |
| 9.- Haur txikiak               | 24.- Hobiak                     |
| 10.- Arrain mota               | 25.- Kirikinoa, sagarroia       |
| 11.- Langak                    | 26.- Agotza                     |
| 12.- Hilaren aldeko ospakizuna | 27.- Nafarroako herria          |
| 13.- Gizpuzkoar boxeolaria     | 28.- Txofer                     |
| 14.- Begi-bixtako              | 29.- Arabako herria             |
| 15.- Iparraldean, orduak       | 30.- Goldeak utziriko arrastoak |



Galdaragintza arina  
Hoditeria  
Erremitteritza  
Soldadura homologatuak

**Antonio Rodrigues Da Cruz**

BERRIONDOKUA INDUSTRIALDEA, 8 - ELGETA  
Tel: 76 81 01 Faxa: 78 90 14





Argazkia: Isidro Askasibar

## Altube baserrian 1962. urtean (zilarrezko eztaiak)

Ale honetako argakian jende ugari ikus genezake bilduta. Ez ez, ez ziren bildu belarra batzeko nahiz eta orain horretarako garai aproposa izan. Felix Arantzabalek soinua jotzen 25 urte egin zituela ospatzeko bildu zen jendetza hau. zilarrezko eztaiak egin zituen bada Felixek.

Hori bai meritua!

Ez da txantxetakoa itsua izanik jotzen zuen moduan jotzea. Soinua ikasteko nahia eta gogoia izan zuen eta baita ikasi ere.

Felixekin batera daudenak:

Goikoak: Karrantza (Aranburuko kriaia), Blas Arrazola, Luis Mari Retolaza, Rufino Askasibar, Juan Arrazola, Lazaro Egizabal, Rafael Loidi, Jose Antonio Retolaza.

Erdi aldean goikoak: Karlos Sagastitxu, Martin Osoro, Jose Antonio Otxoa, Isidro Askasibar, Migel Ojanguren eta Jose Iratzabal.

Erdi aldean behekoak: Mari Karmen Atorrasagasti, Gelatxo, ezezaguna, Sabin Gallastegi (Txaraka), Patxi Iratzabal, Antonio Askasibar, Jesusita Retolaza, Pedro Arrazola, Juan Iratzabal, Maria Jesus Atorrasagasti, Eloi (Altubeko kriaia), Luis Egizabal, Lazaro Arrazola eta Mari Karmen Atorrasagastiren senarra.

Behekoak: Eguren, Juanito Retolaza, Kanuto Askasibar, frailea, FELIX ARANTZABAL, Don Juan Arretxe eta Txomin Retolaza.



EGAÑA  
Soldadura



EGAÑA  
Gas  
industrialia

Berriondokia industrialdea 7

20690 ELGETA

Tel. 78 90 61 - Faxe 78 90 14



**Egaña**  
Instalakuntzak

ETXERAKO ETA  
INDUSTRIETARAKO

- BEROGAILUAK
- AIRE EGOKITUA
- GASA

*Goibekokale* aldizkaria ez  
baduzu etxean jasotzen  
deitu 78 90 85 zenbakira eta  
zurekin harremanetan  
jarriko gara.